



Expte. nº SUBV_EVAL_INDIV/2024/5

Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, Lantegi Eskoletako prestakuntza laguntzeko. 2024. urtea

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO](#)[n](#), [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZALEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Ekintzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honek arautzen du Iruñeko Udalaren eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren arteko lankidetzan eginiko Udalaren Gizarte Alorreko Lantegi Eskoletako programetako ikasleei 2024. urtean bekak emateko prozesua.

Programa horietan parte hartzen dutenek bertaratzeagatik beka bat jasotzen ahalko dute ebazpen honetan ezarritakoarekin bat:

5759E/2023 Ebazpena, irailaren 8koa, Nafar Lansare – Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez dirulaguntzen deialdia onesten baita, 2023, 2024 eta 2025erako, soilik Nafarroako Foru Komunitatean dauden langabeei zuzendutako prestakuntza- eta enplegu-programak gauzatzeko.

Beka hauek pizgarri dira programetan planteatutako helburuak lortze aldera. Zuzenean emanen dira, aldez aurretik ikasleek hala eskatuta.

2. Deialdiaren helburua:

Aurreko atalean aipatutako bekak parte-hartzaileen enplegarritasuna hobetzera bideratuta daude, eta lehen deskribatutako enplegurako prestakuntza-programan (Iruñeko Udalaren Gizarte Ekintza Alorreko Lantegi Eskolak) planteatutako sarbidea, jarraitutasuna eta prestakuntza- eta laneratze-helburuak lortzea sustatzen dute, haien prestakuntzak familiei aparteko gasturik eragin ez diezaien.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

- Ezinbesteko baldintza izanen da 2024an zehar Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorrak lankidetzan eginiko lantegi batean parte hartzea.
2024an abiatutako prestakuntza-ekintzak ere deialdi honetan sartuko dira.

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiaztatu daitekeena



BANAKAKO EBALUAZIOA

Beka lehen etapan (Orientazioa eta prestakuntza-hastapenak) soilik eskuratzen ahalko da.

- Ikaslearen bajak edo kanporatzeak bekak jasotzeko eskubidea galtzea dakar.
- Laguntzak jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko luke prestakuntza-ekintza bakoitzean hilean hiru bider baino gehiagotan justifikatu gabe huts egiteak (betiere, espedienteen hutsegiteak justifikatzeko Gizarte Txostenik ez badago; Txostena badago, bertaratu diren egunak bakarrik ordainduko zaizkie eta ez dute galduko bekaren gainerakoa kobratzeko eskubidea).
- Bertaratu gabeko egunak –justifikatuta zein justifikatu gabe– ez dira ezein kasutan zenbatuko laguntzak ordaintzeko. Deialdi honen ondorioetarako dagokion asteko eguneko irakas-jardun osoa hartuko da bertaratze-egun gisa, ordu-kopurua edozein delarik ere.
- Halaber, laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du lantegiak dirauen bitartean ikaslea lan-merkatura sartzeak. Lana asteburuetan edo Eskolaren ikas-orduetatik kanpo egiten bada, eta betiere horren beharra justifikaturik badago, hala ikaslearen nola haren familiaren bizibidea delako, ikasleak beka jasotzeko eskubidea izaten segituko du. Alabaina, ikaslea berriro langabezia geratzen bada, berriro eskatzen ahalko du beka, eta hura jasotzeko eskubidea onartuko zaio Gizarte Segurantzaren baja eman duen dataren biharamunetik hasita, baldin eta horren berri ematen badu astebeteko epean, bajaren egunetik kontatzen hasita, edo jakinarazpena epe hori gaindituta egiten badu, jakinarazpena egin duen egunetik hasita.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

Bekak zuzenean emanen dira, martxoaren 28ko TMS/368/2019 Aginduan ezarritako prozedurari jarraikiz. Agindu horren bidez, Lan-arloko enplegurako Lanbide Heziketaren sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legea garatzen duen uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretua garatzen da, administrazio eskudunen prestakuntza-eskaintzari eta finantzaketari dagokienez, eta hura finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira.

Urteko azken hilabeteetan sortutako beka-kopuruak honela izapidetuko dira: diru-konpromiso bat onetsiko da urtea amaitu baino lehen, ikasleen bertaratzeen gainean egindako aurreikuspenen arabera, eta gero, laguntzaren ordainketa egingen da abenduan ikasleek ikasgelara benetan izan duten bertaratzearekin bat.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEN KONTAKO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 37.000 €

Apartatu honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazioa 2024an agortzen bada eta Gizarte Ekintzako Alorrean aurtengo urterako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira gauzatu, jarduera horietarako aurreikusitako zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira. Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 70/24110/480000

3. Banakako gehienezko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Lantegi Eskolako ikasleak eguneko 9 € jasoko dute beka gisa.

4. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastu-baimena eta -konpromisoa aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako esleitutako kredituaren mende egonen dira.

5. Urtekoak:

Urteko arrunta: 37.000 € 2. Urtekoa () € 4. urtekoa () €



1. urtekoa () € 3. urtekoa () €

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izaten ahal dira onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1- Beka jasotzen ahalko dute Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorreko lantegi-eskoletako enplegurako prestakuntzako programa publikoetako edozeinetan parte hartzen ari diren langabetuek.

Programa horietan ikasleek lanbide-prestakuntza pertsonalizatuko ibilbide-programa espezifiko bat landuko dute. Lantegi-eskoletako programetako bakoitza herritar-profil bati zuzenduta dago, denak langabetuak izatea aurreikusten bada ere:

a) kotizazio gabeko prestazioak jasotzen dituzten langabeak, eta desgaitasun edo bazterketa egoeran edo arriskuan daudenak.

b) 16 eta 30 urte bitarteko gazte langabeak, gehienez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulazioa dutenak.

c) Iraupen luzeko langabetuak, 30 urtetik gorakoak kualifikazio edo birkualifikazio eta berregokitze prozesuak behar dituztenak, lan merkatuko eskakizun berrietara egokitzeko

2- Ikasleek hilean hiru bider baino gehiagotan justifikatu gabe ez huts egitea. Nolanahi ere, ezin izanen dute bekarik jaso prestakuntza-ekintzara joan gabeko egunen truke.

Beka jasotzeko eskubidea galtzea dakar, era berean, prestakuntza-ekintzari aprobetxamendurik ez ateratzeak, prestakuntzaren arduradunak hala proposatuta.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla:

Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

- Prestakuntzara joatea eta probetxua ateratzea, hilabeteko epean justifikatu gabeko hiru huts egin gabe.

- Parte hartzaileen betebeharra izanen da Udalarik Gizarte Segurantzako altak eta bajak gertatu bezain laster jakinaraztea (astebeteko epean, gehienez ere).

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko diote dirulaguntzaren xede diren jardura edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:



BANAKAKO EBALUAZIOA

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: BAI ☒ EZ
Xede-epea: ☐

F. ALDAKETAK PROIEKTUAN:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera: BAI ☒ EZ
☐

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak non aurkeztu:

Dirulaguntza-eskaerak honako toki hauetan aurkezten ahalko dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean– Kondestablearen jauregia (Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskatzaileek eskabidea aurkeztu beharko dute prestakuntza-saioretan hasi eta 20 EGUN NATURALEKO epean.
Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak interesdunak edo zuzenbidean balioudun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinaturik aurkeztutako eskabide bidez egin behar dira, deialdi honen I. eranskinetako ereduarekin bat. Eskaerarekin batera, deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adieraziz noiz eta zer organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota, eta kasu bakar batean ere bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.



Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiazta daitekeena

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeakoak.
- Eskatzailearen NAN/IFK: entitatearen datuak egiaztatzeako sisteman kontsulta ukatzen den kasuetan soilik.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, honako agiri hauek:

☐ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☒ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izan–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteren ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarreak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). BAI ☒ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena. Dirulaguntza honen xedea eta izaera kontuan harturik, ez zaie eskatuko eskatzaileei atal honetan adierazitako agiriak aurkezteko. Alabaina, eskaeran zein Enplegu lantegi-eskolatan parte hartzen ari diren adierazi beharko da, deialdi honetako baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera.

g) Iruñeko Udalak dirulaguntza ordain dezan, eskatzaileak deialdiaren IV. eranskinean jasotako transferentzia bidezko ordainketa-eskabidea aurkeztu beharko du (banku-entitatean beteta), edo, bestela, bere izenean duen banku-kontuaren zenbakia jasotzen duen libretaren fotokopia.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

BANAKAKO EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiazta daitekeena



005404845762451991023

6

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA.

EBAZPENAREN

JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-krediturik dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Beken gaineko ebazpena eta jakinarazpena Gizarte Ekintza Alorreko Zinegotzi Ordezkariek onetsi beharko ditu BI HILABETEKOKO gehieneko epean. Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsiz gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak. Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI ☐ EZ
- ☒ Epea kontatze beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsitzat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA:

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Bekak emateko ebazpena Iruñeko Udalaren webgunean emanen da argitara; bertan onuradunak identifikatuko dira, ikasle-zenbakiaren eta Eskolaren bidez, eta emandako kopuruak adieraziko dira.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruzko argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izaten ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahaliko dira: 9 € bertaratutako pertsona eta egun bakoitzeko.

Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.





BANAKAKO EBALUAZIOA

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen Ñ.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak:

☐ BAI ☒ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xede izanen:

2. Dirulaguntzen xede izaten ahal diren gastuak egiteko epea: 2024 urteko beka bidezko prestakuntza-fasea.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☐ BAI ☒ EZ

Ehunekoa:

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoa. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

BAI ☒ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa:

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☒ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Halaber, laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du diruz lagundutako prestakuntzak dirauen bitartean ikaslea lan-merkatura sartzeak. Lana asteburuetan edo Eskolaren ikas-orduetatik kanpo egiten bada, eta betiere horren beharra justifikaturik badago, hala ikaslearen nola haren familiaren bizibidea delako, ikasleak beka jasotzeko eskubidea izaten segituko du.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek erdietsi direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:



Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiazta daitekeena





1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☒ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa. Ordainketa behin dirulaguntza emateko ebazpena onuradunari jakinarazi eta gero egingen da.

Behin dirulaguntza jasotzeko eskubidea aitortuta, ordainketa hilero egingen da, aurreko hilabeteko bertaratze-agiriaren egiaztapena egin eta 15 eguneko epean. Lehen ordainketa emakida-ebazpena jakinarazi eta hurrengo hilabete egingen da. Lehen ordainketa horretan egun horretara arte sortutako laguntzen zenbateko osoa sartuko da.

Aintzat hartuta laguntzak baldintza dutela prestakuntza-ekintzara aprobetxamenduz bertaratzea, ordainketa oro egin aurretik egiaztatuko da onuradun bakoitza hilero zenbat egunetan bertaratu den, (Ñ) klausulan xedatutakoarekin bat.

Urteko azken hilabete egingarria sortutako beka-kopuruak honela izapidetuko dira: diru-konpromiso bat onetsiko da urtea amaitu baino lehen, ikasleen bertaratze gainean egindako aurreikuspenen arabera, eta gero, laguntzaren ordainketa egingen da abenduan ikasleek ikasgelara benetan izan duten bertaratzearekin bat.

☐ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde aurrekoaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunari, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Nolanahi ere, laguntza hauen izaera kontuan harturik, eta lauki honen D apartatuaren azken paragrafoan ezarritakoarekin bat, azken betekizun hori bete gabe geratzen ahalko da. Horrela, salbuzpenez, dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, Iruñeko Udalak ofizioski kitatzen ahalko ditu, alde aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza osorik edo parte batean zor dituzten, kopuruekin konpentsatuta bai eta, betekizun hori betearazi gabe utzi ere gizarte-larrialdiko egoera berezien kasuan.

2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

BANAKAKO EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiazta daitekeena



005404845762451991023



1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

☐ Justifikazio-kontua:

- ☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).
- ☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta: Bestelako ☐ edukirik: ☐ BAI ☐ EZ
- ☐ Justifikazio-kontu erraztua:

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatze aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☒ Beste sistemaren bat:

Deialdi honetan ezartzen den dirulaguntza kobratzeko eskubidea honela justifikatuko da:

- prestakuntza-ekintzara benetan bertaratzeari dagokion eguneko beka Ekipo Teknikoek sinatutako bertaratzeko-fitxen bitartez egiaztatuko da (V. eranskinean jaso eta NEZek emandako ereduaren arabera) eta hilabetea amaitu eta hurrengo 5 egunetan aurkeztu behar dira.

Ikaslearen bajak edo kanporatzea bekak jasotzeko eskubidea galtzea dakar.

Bertaratu gabeko egunak –justifikatuta zein justifikatu gabe– ez dira zenbatuko laguntzak ordaintzeko.

Beka jasotzeko eskubidea galtzea dakar, era berean, prestakuntza-ekintzari aprobetxamendurik ez ateratzeak, prestakuntzaren arduradunak hala proposatuta.

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Beka ordainduko den hilabetearen bukaeratik 5 egunetara.

0. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

- Ikasleak beka jasotzeko eskubidea galduko du hilean justifikatu gabeko 3 hutsegite edo gehiago egiten baditu ikastaro bakoitzean, B.3 puntuan jasotako salbuespenetan izan ezik.

- Nolanahi ere, ez dute laguntza jasotzeko eskubiderik izanen prestakuntza-ekintzara joan gabeko egunen truke.

- Dirulaguntzak jasotzeko eskubidea galduko da ikastarotik kanporatua izatea eragin duen gertaeraren egunetik aitzina.



Iruñeko Udalak ikasleei eskatzen ahal die bidegabe jasotako kopuruak atzera itzultzea, Iruñeko Udaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren dirua itzultzeko prozeduraren bidez.

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☒ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.**

☒ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**

IV. ERANSKINA: UDAL-TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO
ESKABIDEA V. ERANSKINA: BENETAKO BERTARATZEARI BURUZKO
FITXA

VI. ERANSKINA: LANTEGI-ESKOLA ETA PROGRAMA INTEGRATUETAKO PARTE-HARTZAILEEN
BERTARATZEAREN LABURPENA



Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2> helbidean egiazta daitekeena





-I. ERANSKINA-

DIRULAGUNTZA-ESKAERA: LANTEGI-ESKOLAN PARTE HARTZEKO BEKAK

PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZINETATEAREN IZENA					
NAN, IFZ, AIZ edo IFK			HELBIDEA		TELEFONOA
Zk.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	
[EZABATU EZ DAGOKIONA]					
BERE edo HONAKO HONEN IZENEAN*:					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZINETATEAREN IZENA				NAN, IFZ, AIZ edo IFK	
JAKINARAZPENETARAKO DATUAK					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZINETATE-IZENA					
NAN, IFZ, AIZ edo IFK			HELBIDEA		
Zk.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	TELEFONOA
FAXA		HELBIDE ELEKTRONIKOA			

Jakinaren gainean nago xede honetarako dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, (data) ko (zk.) . NAOn argitaratu dela.

ESKATZEN DUT: Eskaera kontuan har dadila. Horretarako, honako agiri hauek aurkezten ditut:

- ☐ Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak (eskatzailearen NAN / NIE).
- ☐ Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu gisa hartuta, ziurtatzeko pertsona edo entitate eskatzaileak bete egiten dituela Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eta deialdi honek exijitzen dituzten baldintzak, eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen diren onuradun izateko ezein debeku-ziok ez duela ukitzen.
- ☐ Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (III. eranskina).
- ☐ Memoria bat, dirulaguntza zertarako eskatu eta proiektu, ekintza, jarrera edo jarduera hori deskribatzen duena.

Prozedura tramitzatzeko beste administrazio batzuen esku dauden datuak behar dira. Beraz, eskaera aurkeztean berariazko baimena ematen zaio instrukzioaz arduratzen den organoari datuen egiazotasuna egiaztatzen duten egiaztapen egokiak egiteko.

Hala ere, eskatzaileak berariaz ukatzen ahalko du baimena, eta kasu horretan behar diren agiriak aurkeztu beharko ditu.

HONAKO PROGRAMA HONETAN PARTE-HARTZEKO BEKA-ESKAERA:

☐ ELE

Iruñean,(e)ko.....aren(e)(a)n.

(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun Gizarte Ekintzako Alorrak emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliiko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari baino ez zaizkio jakinaraziko, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es/eu) kontsultatzen ahal dituzu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria.



-II. ERANSKINA-

-ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA-

Izen-abizenak:

Helbidea (jakinarazpenetarako):
.....

NAN: Telefonoa:.....

Faxa: Helbide elektronikoa:

Nire kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):
.....

Helbidea:

IFZ:

Telefonoa: Faxa: Jakinaren gainean nago
dirulaguntzen deialdia egin dela, banakako ebaluazio-araubidean, xede honetarako:
.....
.....,

ADIERAZTEN DU:

- Bete egiten ditut onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak aipatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honetan ezarritako berariazko betekizunak.
- Ez nau ukitzen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikulua onuradun izateko aipatzen dituen debeku-zioetako bakar batek ere.
- Egunean ditut zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.
- Konpromisoa hartzen dut eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa erabiliko dudala dirulaguntza emateko oinarritzat hartu diren helburuak eta jarduerak betetzeko.
- Konpromisoa hartzen dut adierazpen honek zehazten dituen inguruabarrak ziurtatzeko, errekerimendua noiz egin eta hortik hamabost eguneko epean, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 15.7 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin, eta sinatzen dut,

Iruñean, _____ (e)ko _____ aren ____ (e)(a)n

(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun Gizarte Ekintzako Alorrek emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari baino ez zaizkio jakinaraziko, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es/eu) kontsultatzen ahal dituzu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria.



Ayuntamiento de
Pamplona | **Iruñeko**
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL
Gizarte Ekintzako Zuzendaritza

GIZARTE EKINTZAKO ALORRA
Gizarte Ekintzako Zuzendaritza



-III. ERANSKINA-

**-ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZA ESKATU IZANAREN
GAINEAN-**

Izen-abizenak:

Helbidea (jakinarazpenetarako):
.....

NAN: Telefonoa:.....

Faxa: Helbide elektronikoa:

Nire kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):
.....

Helbidea:

IFZ:

Telefonoa: Faxa: Jakinaren gainean nago
dirulaguntzen deialdia egin dela, banakako ebaluazio-araubidean, xede honetarako:

.....
.....,

ADIERAZPENA, ESKATUTAKO DIRULAGUNTZARI BURUZ:

- ☐ Ez diet ezein dirulaguntza eskatu, deialdi honen xede bererako, nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste ezein partikularri –ezta haiengandik halakorik jaso ere–.
- ☐ Dirulaguntza hauek eskatu dizkiet, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste edozein partikularri: **Eskatutako dirulaguntzak: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)**
- ☐ Dirulaguntza hauek jaso ditut, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edota partikular hauen eskutik: **Jasotako dirulaguntzak: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)**

Iruñean, ____ (e)ko ____aren ____ (e)(a)n

(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun Gizarte Ekintzako Alorrek emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari baino ez zaizkio jakinaraziko, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko,



Ayuntamiento de
Pamplona | **Iruñeko**
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/eu

ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL
Gizarte Ekintzako Zuzendaritza

GIZARTE EKINTZAKO ALORRA
Gizarte Ekintzako Zuzendaritza

datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es/eu) kontsultatzen ahal dituzu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria.

LANTEGI-ESKOLAK ETA PROGRAMA INTEGRATUETAKO PARTE-HARTZEAREN LABURPENA

PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN IZENA :

PRESTAKUNTZA EMATEN DUEN ZENTROA:

BERTARATU KOPURUA TALDEAN :

HASIERA-DATA:

AMAIERA-DATA:

ESKOLA EGUNAK, (EE) GUZTIRA:

DATA:

Zk.	IZEN-ABIZENAK	EKAINA			UZTAILA			ABUZTUA			IRAILA			URRIA			AZAROA			ABENDUA			BERTARATUTAKO EGUNAK, GUZTIRA:
		EE			EE			EE			EE			EE			EE			EE			
		B	EJ	J	B	EJ	J	B	EJ	J	B	EJ	J	B	EJ	J	B	EJ	J	B	EJ	J	
1.																							
2.																							
3.																							
4.																							
5.																							
6.																							
7.																							
8.																							
9.																							
10.																							
11.																							
12.																							
13.																							
14.																							
15.																							
16.																							
17.																							
18.																							
19.																							
20.																							



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

Sin.:

Enplegurako Prestakuntza Programetako zuzendaria

LANTEGI ESKOLA ETA PROGRAMA INTEGRATUEN PROGRAMA
IKASLEEN BERTARATZE-SINADURA, ESPEDIENTE HONI DAGOKIONEZ: 31

Lantegi-eskola edo programa integratuaren izena..... Hasiera-data:..... Amaiera-data:.....

Espezialitatea: Herria: PK: Egun lektiboak:

(ASTEA) NOIZTIK NOIZ ARTE:.....

Zk.	NAN:	IZEN-ABIZENAK	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
1.								
2.								
3.								
4.								
5.								
6.								
7.								
8.								
9.								
10.								
11.								
12.								
13.								
14.								

15.								
16.								
17.								
18.								
19.								
20.								

IRAKASLEA

ZUZENDARIA

Sin.:

Sin.: